

LEA-IBARRAN ESKURA DITUZUN BESTE ZERBITZU PUBLIKOAK

Gizarte Zerbitzuak:

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK:

Zer gizarte baliabide dituzun eta zer zerbitzu dauden esango dizute.

EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKO ZERBITZUA

informazioa eta orientazio juridikoa lortuko duzu.

Ordutegia: 9:00 –14:00 / Telefonoa: 946 035 860

*Lea Ibarra*ko Udal Mankomunazgoa, *Elaxalde 1* – GIZABURUAGA

ZUTITU ARRETA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA (B.F.A.)

Laguntza psikologikoa tratatu txarren aurrean eta sexu indarkeria kasuetan.

Ordutegia: Astelehen eta astearteetan 10.00 -13.00

eta ostegunetan 9.00 -13.00 / Telefonoa: 94 616 90 68

Patrokua Jauregia, Xemein etorbidea, 13 – Markina-Xemein



LEA-IBARREKO
MANKOMUNAZGOA



MUNITIBARKO
UDALA



AULESTIKO
UDALA



GIZABURUAGAKO
UDALA



AMOROTOKO
UDALA



MENDEXAKO
UDALA

Emakumeen
kontrako
indarkeria jasaten
dutenentzako
laguntza bideak

HARTU hau, ERAMAN eta GORDE ezazu!
eta LASAI ZAUDELA IRAKURRI. Zuretzat da,
edota zure inguruko beste emakumeren
batentzat. Hemen daukazu behar duzun
informazioa eta horrela jakingo duzu zer
laguntza- bide dituzun.



Zer da emakumeen kontrako indarkeria? Emakumeek jasaten duten indarkeria, zer eta emakume izateagatik.

Emakumeen kontrako indarkeria emakumeak kontrolpean eta menpeko mantentzeko metodoa da.

Onartezina da, giza eskubideen urraketa eta jendarte osoaren arazoa. Indarkeriaren kontra egitea denon egin beharra da. Apur dezagun bada isiltasuna!

Indarkeria egoerak antzemateko argibideak: ADI! Hauetako zerbait jasanarazten badizute tratu txarrak jasaten ari zara.

- *Jotzen bazaitu.*
- *Mehatxatzen bazaitu.*
- *Errudun sentiarazten bazaitu.*
- *Iraintzen bazaitu.*
- *Umiliatzen bazaitu.*
- *Jendaurrean ez bazaitu aintzat hartzen.*
- *Gutxiesten bazaitu.*
- *Balio sentimental handiko objektuak puskatzen badizkizu.*
- *Ez badizu zure dirua maneiatzen uzten, are gehiago, zure gastu guztien berri eman behar badiozu.*
- *Telefono zein gutunak kontrolatzen badizkizu.*
- *Bultzatzen bazaitu.*
- *Lotzen bazaitu, hau da, zure joan-etorri guztien berri eman behar badiozu.*

Neurri legalak eta sozialak ditugu egoera horiei aurre egiteko. **ZEUK ERABAKI** zer egin, baina gogoan izan, **EZ ZAUDE BAKARRIK**. Lea-Ibarra eskualdean ondorengo zerbitzu publikoak ditugu, denak doakoak eta konfidentzialak:

24 ORDUKO ZERBITZUAK

1) SOS DEIAK: 112

2) ERTZAINZA – Ondarroako basea

Telefonoa: 946 832 700

Helbidea: Zaldupe z/g

Zauden tokira hurreratuko dira, edo zu zeu beraiek dauden tokira joan zaitezke. Berehala jarriko dituzte martxan beharrezkoak diren babes neurriak. Salaketa ertzain-etxean jarri dezakezu, gainera beharrezkoa izanez gero babes pisura eta osasun zentrora lagunduko dizute.

3) OSASUN ZENTROAK – Larrialdiak 24 ordu egunero

Lekeitio 946 035 860 / Gernika 946 035 800.

4) 900 840 111 Tratu txarrak izan dituzten emakumeentzat 24 orduko telefono bidezko laguntza, doan eta konfidentziala. Arreta psikologiko profesionala. Deiak hizkuntza ezberdinetan erantzuten dira.